



ESTADISTIKA
ORGANOA

ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA (EEEE) 2017ko 1. hiruhilekoa

Emaita nagusiak

*Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren
Estatistika Organo Berezia*



1.- OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

Nahiz eta obren lizentziak Araban eta Gipuzkoan 2016ko laugarren hiruhilekoaren eta 2017ko lehen hiruhilekoaren artean murriztu diren, 2016ko hiruhileko beraren ondoan, gora egin dute Araban eta Bizkaian, eta bere horretan geratu dira Gipuzkoan

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera (EEEE), 2017ko lehen hiruhilekoan obra handiko 738 lizentzia eman zituzten guztira Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalek. Emaizta horiek 2016ko laugarren hiruhilekoan jasotakoak baino zerbait apalagoak dira. Izan ere, 15 lizentzia gutxiago eman ziren, eta horrek esan nahi du % 2ko murrizketa izan dela datu erlatiboei erreparatuta. Aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta, baina, jarduera nabarmen areagotu da: 79 lizentzia gehiago onartu dira; hau da, % 12 gehiago.

Hiruhilekoan, Bizkaian obra handiko lizentzien % 56,8 eman da; guztira, 419 lizentzia. Haren atzetik, Araba. Lurralde horretan 183 lizentzia eman dira; hau da, lizentzia guztien % 24,8. Gainerako 136ak Gipuzkoan eman dira (% 18,4).

EAEko lurralde historikoen artean, Bizkaian bakarrik egin du gora obra handiko lizentzien kopuruak 2016ko laugarren hiruhilekoaren eta 2017ko lehenengoaren artean. Lurralde horretan, aintzat hartutako lizentziak % 14,2 igo dira aipatu epean (52 lizentzia gehiago). Gipuzkoan, aldiz, emandako lizentzien kopuruak % 28,8 egin du behera 2016ko laugarren hiruhilekotik 2017ko lehenera bitartean (55 lizentzia gutxiago). Araban ere emaitzek okerrera egin dute aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, baina Gipuzkoan baino askoz neurri txikiagoan, % 6,2ko jaitsiera izan baitu (12 lizentzia gutxiago).

Gipuzkoan eta Araban azken hiruhilekoan izandako jaitsieren ondoan, urtetik urtera lurralde historiko guztietan igo egin da emandako lizentzien kopurua, nahiz eta intentsitate desberdinarekin. Bizkaian, guztira 64 lizentzia gehiago eman dira 2016ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta; hau da, % 18ko hazkunde erlatiboa izan da. Araban urtean 16 lizentzia gehiago eman dira; hau da, % 9,6ko hazkunde erlatiboa. Gipuzkoan, aldiz, egonkortzea ageri da lizentziak ematean, 2016ko lehen hiruhilekoan obra handiko 137 eman baitziren, 2017ko lehenean baino bat gehiago (-% 0,7).

Birgaitze-lanetarako lizentziek nagusi izaten jarraitzen dute

2017ko lehen hiruhilekoan, **emandako lizentzia moten** arabera banaketan mantendu egin da aurreko hiruhilekoetako joera: argi eta garbi nagusi dira birgaitze-lanetarako lizentziak. Horiek gora egin dute azken hiruhilekoan.

Zehazki, hiruhileko horretan birgaitze-lanetarako lizentziak obra handiko lizentzien % 83,7 izan dira (2016ko laugarren hiruhilekoko % 78,1en gainetik, eta 2016ko hirugarren hiruhilekoko % 83,3ren antzeko), oin edo eraikuntza berriko eraikinetarako lizentziak % 14,4 (2016ko laugarren hiruhilekoan, % 19,3), eta eraispenetarako



lizentziak % 1,9. Kopuru absolututan, birgaitzeko 618 lizentzia eman dira (2016ko laugarren hiruhilekoan baino 30 gehiago; hau da, % 5,1 gehiago), 106 eraikuntza berriak egiteko (39 lizentzia gutxiago; hots, % 26,9 gutxiago), eta 14 eraisteko (aurreko hiruhilekoan baino 6 gutxiago).

Emandako lizentzien guztizkoarekin alderatuta, 2017ko lehen hiruhilekoan eraikuntza berriko eta birgaitze-lanetarako lizentzien banaketan aldeak daude lurralde historikoen artean. Edonola ere, azken hiruhilekoan alde horiek murrizten joan dira. Gipuzkoan eraikuntza berriak pisu erlatibo zerbait handiagoa du (obra handiko emandako lizentzia guztien % 18,4, Arabako % 13,1en eta Bizkaiko % 13,6ren ondoan). Horrek kontrako eragina dauka birgaitzeko obra handiko lizentzietan, eraispenen eragin desberdina ere tarteko; izan ere, Gipuzkoan birgaitzeko lizentziak emandako lizentzia guztien % 77,9 izan dira, baina proportzioa % 85,2ra iritsi da Araban, eta % 85era Bizkaian.

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017ko 1. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta ehunekoen arabera, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2017ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa		Aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko aldaketa	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	738	100,0	-15	-2,0	79	12,0
	Eraikuntza berria	106	14,4	-39	-26,9	17	19,1
	Birgaikuntza	618	83,7	30	5,1	60	10,8
	Eraispena	14	1,9	-6	-30,0	2	16,7
Araba	Guztira	183	100,0	-12	-6,2	16	9,6
	Eraikuntza berria	24	13,1	-15	-38,5	-6	-20,0
	Birgaikuntza	156	85,2	3	2,0	23	17,3
	Eraispena	3	1,6	0	0,0	-1	-25,0
Bizkaia	Guztira	419	100,0	52	14,2	64	18,0
	Eraikuntza berria	57	13,6	-12	-17,4	25	78,1
	Birgaikuntza	356	85,0	66	22,8	36	11,3
	Eraispena	6	1,4	-2	-25,0	3	100,0
Gipuzkoa	Guztira	136	100,0	-55	-28,8	-1	-0,7
	Eraikuntza berria	25	18,4	-12	-32,4	-2	-7,4
	Birgaikuntza	106	77,9	-39	-26,9	1	1,0
	Eraispena	5	3,7	-4	-44,4	0	0,0

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistika. 2017ko 1. hiruhilekoa

2016ko laugarren hiruhilekotik 2017ko lehenera bitartean, Araban jaitsiera nabarmena izan da eraikuntza berriko lizentzietan (-% 38,5), eta birgaitze-lanen kasuan, aldiz, lizentziek gora egin dute (+% 2). Bizkaian, are handiagoa izan da birgaitze-lanetarako lizentzien gorakada erlatiboa (+% 22,8), eta eraikuntza berrikoak gutxiago –



baina modu esanguratsuan– jaitsi dira (-% 17,4). Gipuzkoa da bi obra motetan beheranzko joera izan duen lurralde bakarra: % 32,6 jaitsi da eraikuntza berrietan, eta % 26,9 birgaitze-lizentzietan.

Urtetik urterako bilakaera dela eta, Bizkaiak ageri du bilakaera onena eraikuntza berrien lizentzietan, lizentzia mota hori nabarmen gehiago eman baita (+% 78,1). Arabaren kasuan, aitzitik, % 20ko atzerapena nabari da, eta Gipuzkoan txikiagoa (-% 7,4). EAE osoan, obra berrirako lizentzien urtetik urterako igoera % 19,1ekoa izan da, eta, guztira, obra handiko 17 lizentzia gehiago eman dira.

Birgaitze-lizentziek ere gora egin dute EAEn, 2016ko lehen hiruhilekoaren eta 2017koaren artean, nahiz eta obra berrirako lizentziek baino motelago (+% 10,8). Gorakoa Araban (+% 17,3) eta Bizkaian (+% 11,3) izandako gorakadarekin lotuta dago, EAEko batez bestekoa baino handiagoa. Gipuzkoak, aldiz, egonkortuta jarraitzen du lizentzia mota horri dagokionez (+% 1,0).

Urtetik urterako datu metatuek erakusten dute EAEn emandako lizentzien kopurua gehiago handitu dela 2017ko lehen hiruhilekoan aurreko hiruhilekoan baino, eraikuntza berriaren kasuan

Urtetik urterako datu metatu horiek 2016ko bigarren hiruhilekoaren eta 2017ko lehen hiruhilekoaren artean emandako lizentzia guztiak zenbatzen dituzte, eta aurreko urteko hiruhileko berdinetako urteko kopuru metatuarekin alderatuta (2015eko bigarren hiruhilekotik 2016ko lehen hiruhilekora), 429 lizentzia gehiago izan dira, hau da, aldera daitekeen 2016ko aldian baino % 15,3 gehiago. Igoera hori zertxobait handiagoa da eraikuntza berriko lizentzietan; zehazki, % 25,6ko igoera izan da EAEn (109 lizentzia gehiago), eta % 13,5ekoa birgaitzeko direnen kasuan (312 lizentzia gehiago). Eraisteko baino ez diren obretarako lizentzia emateak ere gora egin du (+% 14,8), 8 lizentzia gehiagorekin.

Kopuru horiek 2016ko laugarren hiruhilekoari dagozkion urtetik urterako datu metatuekin alderatuta, aurkeztutako datuek adierazten dute hazkunde-erritmoak areagotu egiten direla eraikuntza berriaren kasuan: 2016ko laugarren hiruhilekoko % 16,7ko hazkundetik, 2017ko lehen hiruhilekoko % 25,6ko hazkundera aldatu da, 2016ko bigarren hiruhilekoko kopurua (% 12,8) eta 2016ko hirugarren hiruhilekoko (% 7,8) ere gainditzen dituen ehunekoa. Birgaitzeko obren lizentzien kasuan, aldiz, urtetik urterako hazkunde-erritmoak 2016ko laugarren hiruhilekoko % 14,6tik 2017ko leheneko % 13,5era egin du (nahiz eta 2016ko aurreko hiruhilekoetako hazkundera gainditzen duen: 2016ko hirugarren hiruhilekoko % 6,7, bigarreneko % 10,9 eta hirugarreneko % 6,6).

Hiru lurraldeetan 2017ko lehen hiruhilekoko urtetik urterako datu metatuen bilakaerak birgaitzeari dagokion aldeko dinamika bat adierazten du, eta atzerakada txikia Araban eta Gipuzkoan, eraikuntza berriari dagokionez



Urtetik urterako datu metatuen analisiak erakusten du EAEn dinamika desberdinak daudela lurralde historikoen arabera.

Bizkaian gora egin du nabarmen azken urtean metatutako lizentzien kopuruak, aurreko urteko epealdi berberarekin alderatuta (+% 17,2, emandako 251 lizentzia gehiago). Hazkunde horrek hobekuntza adierazten du 2016ko laugarren hiruhileko % 13,6rekiko.

Dena dela, deigarria da Bizkaian antzemandako hazkundera batez ere eraikuntza berrian oinarritu dela: % 79,9 egin du gora emandako lizentzia-kopuruak. Horren ondoan, birgaitzeko lizentziek leunago egin dute gora (+% 9,9).

2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017ko 1. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urtetik urterako aldakuntza, balio absolututan eta ehunekotan)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2016ko 2. hiruhilekotik 2017ko 1.ra metatua		2015eko 2. hiruhilekotik 2016ko 1.ra metatua		Urteko aldakuntza metatua, aurreko urteko aldi berdinarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	3.224	100,0	2.795	100,0	429	15,3
	Eraikuntza berria	535	16,6	426	15,2	109	25,6
	Birgaikuntza	2.627	81,5	2.315	82,8	312	13,5
	Eraispena	62	1,9	54	1,9	8	14,8
Araba	Guztira	826	100,0	719	100,0	107	14,9
	Eraikuntza berria	131	15,9	137	19,1	-6	-4,4
	Birgaikuntza	682	82,6	569	79,1	113	19,9
	Eraispena	13	1,6	13	1,8	0	0,0
Bizkaia	Guztira	1.710	100,0	1.459	100,0	251	17,2
	Eraikuntza berria	268	15,7	149	10,2	119	79,9
	Birgaikuntza	1.416	82,8	1.288	88,3	128	9,9
	Eraispena	26	1,5	22	1,5	4	18,2
Gipuzkoa	Guztira	688	100,0	617	100,0	71	11,5
	Eraikuntza berria	136	19,8	140	22,7	-4	-2,9
	Birgaikuntza	529	76,9	458	74,2	71	15,5
	Eraispena	23	3,3	19	3,1	4	21,1


Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistika. 2017ko 1. hiruhilekoa

Arabari, 107 lizentzia gehiago emateak urtetik urterako % 14,9ko hazkunde metatua esan nahi du obren lizentzietan, nahiz eta lurralde horretan lizentzia moten arabera bilakaeran alde oso desberdinak ageri diren. Birgaitzeko lizentziek urtetik urterako % 19,9ko igoera izan dute, baina oin berriko lizentzietan zertxobait egin du behera emandakoen kopuruak (-% 4,4), obra berriko 6 lizentzia gutxiago eman baitira aurreko erreferentziazko aldi bakoitzaren (131 eta 137, hurrenez hurren). Arabari, aldi berean, eraisteko bakoitz ez diren lizentzien kopurua egonkortu egin da (+% 0,0), 13 lizentzia eman baitira bi aldietan.

2017ko lehen hiruhilekoan, Araban ere hazi egin da, Bizkaian bezala, urtetik urterako hazkunde-erritmo metatua, aurreko hiruhilekoko kopuruekin alderatuta. Hartara, 2016ko laugarren hiruhilekoko % 12,8tik oraingo hiruhilekoko % 14,9ra egin da. Hala ere, hazkunde hori birgaitzeko lizentzien emateari dagokio bakarrik, oin berrikoen kasuan, lizentziek 2016ko laugarren hiruhilekoko +% 6,2tik oraingo -% 4,4ra egin baitute behera.

Gipuzkoan, bestalde, emandako lizentziak Araban emandakoak baino gutxiago izan dira (+% 11,5). Birgaitzeko obretarako lizentziek urtetik urterako % 15,5eko igoera izan dute, baina hobetze-prozesu horren aldean, zerbait murriztu da oin berriko eraikuntza (% 2,9). Oro har, guztira 71 lizentzia gehiago eman dira urte batetik bestera, 71 gehiago birgaitze-lanetarako eta 4 gutxiago eraikuntza berrietarako.

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2017



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistika. 2017ko 1. hiruhilekoa



2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERAK

2017ko lehen hiruhilekoan, obra handiko lizentziak, bai bizitegi-erabilerarako lizentziak, bai bizitegirako ez direnak, hazi egin dira aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko, baina egonkortu aurreko hiruhilekoarekiko. Bizitegiatarako ez diren lizentziei dagokienez, bi aldietan industria- eta energia-sektorea izan da hobera egin duen bakarra

2017ko lehen hiruhilekoan, obra handiko 724 lizentzia eman dira, eraikuntza berriak egiteko edo eraikinak birgaitzeko. Lizentzia horietako gehienak (548, hau da, guztizkoaren % 75,7) **bizitegi-erabilerarako** proiektuekin lotu dira, eta gainerako 176 lizentziak, (% 24, 3), berriz, bizitegi-erabilerarako ez diren proiektuekin¹.

2017ko lehen hiruhilekoan **bizitegi-erabilerarako ez diren** obra-lizentziak dagokien sektorearen arabera aztertuz gero, ikusten da zerbitzuen sektoreko erabilerarako direnak nabarmendu direla (lizentzia guztien % 60,2). Industria- eta energia-sektorerako bideratuak % 29,5 dira, eta gainerakoa, % 10,2, lehen sektoreko jardueretarako dira.

Lizentzien kopuruak 2016ko laugarren hiruhilekotik 2017ko lehen hiruhilekora izan duen **hiruhileko bilakaera** ikusita, egonkortzea nabari da bizitegi-erabilerarako proiektuei lotutako lizentzietan (+% 0,0). Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziei dagokienez, aldiz, behera egin dute zertxobait (-% 4,9).

2016ko laugarren hiruhilekoaren eta 2017ko lehenaren arteko bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien jaitsiera (-% 4,9) **zerbitzu**-sektorearen jaitsierarekin lotzen da (-% 18,5), gainerako sektoreetan lizentzia-kopuruak gora egin baitu: **industriak eta energiak** % 36,8ko hazkundearekin eta, apalago, **lehen** sektoreak % 5,9rekin.

2016ko eta 2017ko lehen hiruhilekoen arteko urteko alderaketa aldekoka da bizitegi-erabilerarako lizentziei dagokienez (+% 18,6), baina hiruhilekoaren antzeko jaitsiera du bizitegi-erabilerarako ez direnei dagokienez (-% 4,9).

2016ko eta 2017ko lehen hiruhilekoaren artean bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziak emateko dinamika aztertuz gero, egiazta daiteke industriaren eta energiaren sektorean besterik ez duela gora egin (+% 20,9). Gainerako sektoreetan aldaketa negatiboak ageri dira: lehen sektorean lizentziak ematearen jaitsiera -% 14,3ra iristen da eta zerbitzu-sektorean -% 12,4ra.

¹ Txostenaren atal honetan egiten den analisitik kanpo geratu dira eraisteko obren lizentziak; izan ere, horiek ez dute inolako erabilerarik (ondoren eraikuntza egiten bada, lizentzia-eskaera berria izapidetu beharko da). Era berean, kontuan hartu behar da erabilera mistoa duten eraikuntzak (bizitegi-erabilera eta bizitegi-erabilera ez den beste bat) bizitegi-erabileraren kategorian sailkatzen direla.



3. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabilerarako den kontuan hartuta. 2017ko 1. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urtetik urterako aldakuntza, balio absolututan eta ehunekotan)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2017ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa		Aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko aldaketa	
	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
Guztira	724	100,0	-9	-1,2	77	11,9
Bizitegi-erabilerarako	548	75,7	0	0,0	86	18,6
Bizitegi-erabilerarako ez direnak	176	24,3	-9	-4,9	-9	-4,9
- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	18	10,2	1	5,9	-3	-14,3
- Industria eta energia	52	29,5	14	36,8	9	20,9
- Zerbitzuak	106	60,2	-24	-18,5	-15	-12,4

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistika. 2017ko 1. hiruhilekoa

Urtetik urterako datu metatuei erreparatuz, emandako obra-lizentzien kopuruak gora egin du, hala bizitegi-erabilerarako nola bizitegi-erabilerarako ez direnetarako emandakoen kopuruak. Hala ere, lehen sektorearen beheranzko joerak bere horretan jarraitzen du

Aurreikuspenak positiboak dira **urtetik urterako adierazle metatuei** dagokienez. Hartara, 2016ko lehen hiruhilekora arteko urtetik urterako kopuru metatuak (2015eko bigarren hiruhilekotik 2016ko lehenera artekoak) 2017ko hiruhileko berdinari dagozkionekin (2016ko bigarren hiruhilekotik 2017ko lehenera artekoak) alderatzean, datuek berriz adierazten dute hobekuntza izan dela bizitegi-erabilerarako ematen diren lizentzietan (% 19,7ko igoera), bai eta bizitegi-erabilerarako ez direnetan ere (+% 4,5). Aldeko joera horretan, bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzietan, susperraldia nabari da, nahiz eta 2016ko laugarren hiruhilekoko % 5,9tik hiruhileko honetako % 4,5era aldatzean indarra galdu. Bizitegi-erabilerako lizentzien kasuan, aldiz, hazkundeak zertxobait egiten du gora, 2016ko laugarren hiruhileko % 18,6ko urtetik urterako hazkunde metatutik oraingo % 19,7ra egiten baitu.

Bizitegi-erabilerarako ez diren obra-lizentzietan emateari dagokionez, 2017ko lehen hiruhilekoan metatutako urteko datuek adierazten dute lizentzien emate-bilakaerak hobera egin duela zerbitzu-sektorean (+% 6,3) eta, neurri handiagoan, industria- eta energia-sektorean (+% 13,7). Bilakaera okerrera lehen sektoreari dagokio, % 18,2n murrizten baita lizentziak emateko erritmoa; hala ere, hobera egin du 2016ko laugarren hiruhilekoari dagokionez (-% 20,5).



4. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabilerarako den kontuan hartuta. 2017ko 1. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urtetik urterako aldakuntza, balio absolututan eta ehunekotan)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2016ko 2. hiruhilekotik 2017ko 1.ra metatua		2015eko 2. hiruhilekotik 2016ko 1.ra metatua		Urteko aldakuntza metatua, aurreko urteko aldi berdinarekiko	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
Guztira	3.162	100,0	2.741	100,0	421	15,4
Bizitegi-erabilerarako	2.349	74,3	1.963	71,6	386	19,7
Bizitegi-erabilerarako ez direnak	813	25,7	778	28,4	35	4,5
- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	90	11,1	110	14,1	-20	-18,2
- Industria eta energia	199	24,5	175	22,5	24	13,7
- Zerbitzuak	524	64,5	493	63,4	31	6,3

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistika. 2017ko 1. hiruhilekoa

3.- AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA, OBRA HANDIKO ZENBAT LIZENTZIA EMAN DIREN KONTUAN HARTUTA

Oin berriko eraikuntzen aurreikuspenak okerrera egin du lurralde historiko guztietan aurreko hiruhilekoarekiko, baina hobera egin du aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko, Bizkaiko hazkunde handia dela eta

2017ko lehen hiruhilekoan emandako bizitegi-erabilerarako obra handiko 548 lizentziek berekin dakartzate 1.186 etxebizitzarekin (aurreko hiruhilekoan baino 406 gutxiago) zerikusia duten jarduketak. Etxebizitza horietatik 1.000 oin berriko jarduketekin lotuta daude, eta gainerako 186 etxebizitza, berriz, birgaitzeko prozesuan daudenekin².

Zehaztu behar da tartean dauden oin berriko etxebizitzetan gorabehera handiak egon daitezkeela hiruhileko batetik bestera, bakoitzean sustapen handiak egiteko ematen diren lizentzien arabera. Aurreko hori kontuan hartuta, jaitsiera handia izan da 2016ko laugarren hiruhilekoaren eta 2017ko lehenaren artean EAEn aurreikusitako eraikuntza berriko etxebizitza kopuruan (-% 25,9). 2016ko lehen hiruhilekoko zenbatekoa 2017ko hiruhileko berekoarekin alderatzen bada, berriz, ikusten da funtsezko hobekuntza gertatu dela oin berriko etxebizitzaren aurreikuspenean (+% 72,7).

² Birgaitu beharreko etxebizitzak zenbatzean ez dira kontuan hartzen eraikin berean dauden etxebizitzak, baldin eta birgaitze-obra eraikineko elementu komunetan bakarrik egin behar badira. Birgaitu beharreko etxebizitzak zenbatzean, hauek bakarrik hartzen dira kontuan: osorik birgaitu beharreko eraikinak edo familia bakarreko etxebizitzak; edo zenbait etxebizitza dituzten eraikinak, baldin eta barruko tarte (etxebizitza) batean edo batzuetan egin behar badira birgaitze-obra (azken kasu horretan, kontuan hartzen da zenbat etxebizitza geratu diren etxebizitzak banatzeko edo batzeko prozesuen ondorioz).



Bestalde, 2017ko lehen hiruhilekoan zertxobait okerrera egin du birgaitzeko aurreikusitako etxebizitzaren kopuruak, bai aurreko hiruhilekoarekiko (-% 23,1) bai 2016ko hiruhileko berdinarekiko (-% 16,2).

2017ko lehen hiruhilekoan, **Bizkaia** da aurreikusitako jarduketa gehien dituen lurraldea, eta, guztira, 710 etxebizitza daude jarduketa horiei lotuta; haietako % 87,6 oin berrikoak dira (622 etxebizitza). Lurralde horretan, aurreko hiruhilekoarekiko behera egin du tartean dauden oin berriko etxebizitza-kopuruak (-% 12), nahiz eta gorakada nabarmena den 2016ko hiruhileko berdinarekiko (+% 194,8). Birgaitu beharreko etxebizitzaren kopuruari dagokionez, horien kopurua zertxobait handitu da 2016ko laugarren hiruhilekoari dagokionez (+% 1,1) baina behera egin du 2016ko lehenen hiruhilekoari dagokionez (-% 20,7).

5. taula. Aurreikusitako etxebizitza-kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017ko 1. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta ehunekoen araberakoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA		2017ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa		Aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko aldaketa	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	1.186	100,0	-406	-25,5	385	48,1
	Eraikuntza berria	1.000	84,3	-350	-25,9	421	72,7
	Birgaikuntza	186	15,7	-56	-23,1	-36	-16,2
Araba	Guztira	63	100,0	-171	-73,1	-4	-6,0
	Eraikuntza berria	19	30,2	-151	-88,8	0	0,0
	Birgaikuntza	44	69,8	-20	-31,3	-4	-8,3
Bizkaia	Guztira	710	100,0	-84	-10,6	388	120,5
	Eraikuntza berria	622	87,6	-85	-12,0	411	194,8
	Birgaikuntza	88	12,4	1	1,1	-23	-20,7
Gipuzkoa	Guztira	413	100,0	-151	-26,8	1	0,2
	Eraikuntza berria	359	86,9	-114	-24,1	10	2,9
	Birgaikuntza	54	13,1	-37	-40,7	-9	-14,3

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistika. 2017ko 1. hiruhilekoa

Gipuzkoan, berriz, 413 etxebizitzatarako lizentziak eman dira 2017ko lehenengo hiruhilekoan. Oin berriko 359 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da; bilakaera negatiboa da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 24,1), baina positiboa 2016ko hiruhileko berdinari dagokionez (+% 2,9). Birgaitzeko jarduerari dagokionez, lurralde horrek okerrera egin du 2016ko laugarren eta 2017ko lehen hiruhilekoen artean izandako jardueran (-% 40,7), gutxixeago urtetik urterako dinamikaren ikuspegitik (-% 14,3).



Araban, azkenik, 63 etxebizitzarako jarduketak aurreikusi dira. Jaitsiera handia ikusten da 2016ko laugarren eta 2017ko lehen hiruhilekoen artean aurreikusitako etxebizitza kopuruan (-% 73,1); oin berriari lotutako ekintzak gutxitzearekin zerikusia du (-% 88,8, egonkortzeko joerarekin urtetik urterako bilakaerari dagokionez; +% 0,0). Bestalde, birgaitze-jarduketei lotutako etxebizitzak % 31,3 gutxitu dira 2016ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta; birgaitzeko jarduketetan, aldiz, etxebizitzetarako aurreikusitako emateek maila txikiagoan egiten dute okerrera, aurreko urteko hiruhileko berdinarekin aldean (-% 8,3).

Urtetik urterako zenbateko metatuei erreparatuz gero, emaitzek hobera egiten dute lurralde historiko guztietan eraikuntza berriko etxebizitzari dagokionez. Birgaikuntza dela eta, Bizkaia da emaitzek okerrera egin duten EAEko lurralde bakarra

Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan hiruhileko batetik bestera gorabehera handiak izan daitezkeenez, komeni da analisia emaitzen **urteko dinamika metatuan** oinarritzea. Analisi horren arabera, 2017ko lehen hiruhilekora arte metatutako bizitegi-erabilerarako urteko jardueraren arabera, aurreikusita dauden jarduketek 5.596 etxebizitzari eragiten diote guztira. Horrek esan nahi du % 47,8ko igoera izan dela (1.809 etxebizitza gehiago) 2016ko lehen hiruhilekoan metatutako urteko jarduerarekin alderatuta. Gorakada hori oin berriarekin zerikusia duten jarduketei lotuta dago nagusiki, eragindako etxebizitzetan % 61,4ko igoera izanik (+1.783 etxebizitza). Birgaikuntza-jarduketari dagokionez, hobekuntza askoz ere txikiagoa da (+% 2,9koa, 2016ko lehen hiruhilekoan metatutakoan aurreikusitako jarduketetako 885 etxebizitzetatik 2017ko aldi bereko 911 etxebizitzatara egin baita).

Hala ere, dinamika orokorra lurralde bakoitzean izandako prozesuen artean dauden alde handiek baldintzatzen dute. Hala, birgaikuntzaren arloan Arabak eta Gipuzkoak bilakaera positiboa izan dute. Bi lurralde horiek 2016ko lehen hiruhilekotik 2017kora metatutakoan hazkundera ageri dute: +% 3 Araban, eta +% 19,7 Gipuzkoan. Bizkaian, aldiz, birgaikuntza-ekintzetan urteko jaitsiera metatu handia gertatu da 2017ko lehen hiruhilekoan (-% 7,3).

Lurraldeen arteko aldeak handiak izan dira, halaber, etxebizitza berrien arloan aurreikusitako jarduketetan. Kasu horretan, Gipuzkoak izan du hazkunde txikiena, +% 3 igo baita 2017ko lehen hiruhilekorako aurreikusitako etxebizitzaren urteko kopuru metatua, 2016ko hiruhileko berdinarekin alderatuta. Araban, hazkundera askoz handiagoa izan da (% 44,8). Hala ere, hazkunde esanguratsuena Bizkaiari dagokio, % 129,8 egin baitu gora 2016ko eta 2017ko lehen hiruhilekoen artean.

2017ko lehen hiruhilekorako aurreikusitako etxebizitzaren urteko kopuru metatuaren hazkundera handiagoa da, 2016ko laugarren hiruhilekoko % 40tik oraingo % 47,8ra egin baitu. Zenbaki absolututan, aurreikusitako jarduketetako etxebizitzaren kopurua nabarmen handitu da: kopuru metatuetan, 2016ko laugarren hiruhilekoan 5.211 etxebizitza ziren, 2017ko lehen hiruhilekoan, aldiz, 5.596.



Alabaina, aurreko datuek, oro har, EAEn eraikuntza berrian eta birgaikuntzan dinamikak desberdinak izan direla ezkututzen dute. Birgaikuntzaren arloan, metatutako urteko bilakaerak hazkundearen intentsitatean beherakada ageri du: 2016ko laugarren hiruhileko % 13,7tik oraingo % 2,9rako. 2016ko laugarren hiruhilekoan metatutako 947 etxebizitzatik, lehen hiruhileko honetako 911 etxebizitza izatera igaro da.

6. taula. Aurreikusitako etxebizitza-kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017ko 1. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urtetik urterako aldakuntza, balio absolututan eta ehunekotan)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA		2016ko 2. hiruhilekotik 2017ko 1.ra metatua		2015eko 2. hiruhilekotik 2016ko 1.ra metatua		Urteko aldakuntza metatua, aurreko urteko aldi berdinarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	5.596	100,0	3.787	100,0	1.809	47,8
	Eraikuntza berria	4.685	83,7	2.902	76,6	1.783	61,4
	Birgaikuntza	911	16,3	885	23,4	26	2,9
Araba	Guztira	620	100,0	486	100,0	134	27,6
	Eraikuntza berria	414	66,8	286	58,8	128	44,8
	Birgaikuntza	206	33,2	200	41,2	6	3,0
Bizkaia	Guztira	3.252	100,0	1.669	100,0	1.583	94,8
	Eraikuntza berria	2.857	87,9	1.243	74,5	1.614	129,8
	Birgaikuntza	395	12,1	426	25,5	-31	-7,3
Gipuzkoa	Guztira	1.724	100,0	1.632	100,0	92	5,6
	Eraikuntza berria	1.414	82,0	1.373	84,1	41	3,0
	Birgaikuntza	310	18,0	259	15,9	51	19,7

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistika. 2017ko 1. hiruhilekoa

Eraikuntza berriari dagokionez, ordea, urteko lizentzien kopuru metatuetan hobekuntza nabarmena izan da aurreko hiruhilekoekiko, hala erlatiboa nola absolutua. Hala, datu erlatiboei begiratuta, 2016ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan erregistratutako urtetik urterako +% 0,7ko eta +% 2,8ko hazkunde-erritmoaren ondoren, hazkunde nabarmena ageri da laugarren hiruhilekoan, % 47,6ra iritsi arte; eta 2017ko lehen hiruhilekoak % 61,4ra arte jarraitu du. Balio absolututan, jarduera metatuari dagokionez, eraikuntza berriko lanetan urtean 4.264 etxebizitza eraikitzeo aurreikuspena zegoen 2016ko laugarren hiruhilekoan, eta 4.685 eraikitzeo 2017ko lehenean.



ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAEko 251 udalek igortzen dute hilero. Informazio hori udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, bai eta etxebizitza babestuak sustatze aldera udalak eskuratutako lurzoruari buruzkoa ere. Bestalde, udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren (EEEE) helburu orokorra da jakitea Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den. Udalek emandako obra handiko lizentziak oinarri hartuta, obraren ezaugarri nagusiak (eraikuntza berria, birgaikuntza edo eraispena), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak zein diren jakin nahi da.

Definizioak:

Obra handiko lizentzia (OHL): Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, oin berriko edozein eraikuntza mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan zein ez. Baimenaren helburua da egiaztatzea lizentzia-eskaera bat datorrela hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat:

a. Oin edo eraikuntza berriko obra: Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldez aurretik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

b. Birgaitze-obra: Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldez aurretik eraispen partzialak eginda edo egin gabe.

Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin beharko da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso beharko da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziazat hartuko dira.

Obra horiek bi motatakoak izan daitezke:

- **Handitze-obra:** Lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzoruaren gainean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzorian azalera gehiago hartzen da.



- Erreforma- edo zaharberritze-obra: Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak hauek dira:

- Eraikinak handitzea horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren edo teilatuaren birgaitze osoa
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzaren edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obra.

c. Eraispen-obra: Eraikin bat osoki edo partzialki eraistea da.



ERAIKUNTZAREN ETA ETXEBIZITZEN ESTATISTIKA (EEEE). 2017ko 1. hiruhilekoa

EMAITZA NAGUSIAK

AURKIBIDEA

1.- OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERAK	7
3.- AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA, OBRA HANDIKO ZENBAT LIZENTZIA EMAN DIREN KONTUAN HARTUTA.....	9
ALDERDI METODOLOGIKOAK	13

Taulen aurkibidea

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017ko 1. hiruhilekoa	3
2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017ko 1. hiruhilekoan metatutako urteko datuak.....	5
3. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabilerarako den kontuan hartuta. 2017ko 1. hiruhilekoa	8
4. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabilerarako den kontuan hartuta. 2017ko 1. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	9
5. taula. Aurreikusitako etxebizitza-kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017ko 1. hiruhilekoa	10
6. taula. Aurreikusitako etxebizitza-kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017ko 1. hiruhilekoan metatutako urteko datuak.....	12

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2017	6
--	---

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistikarako Organo Berezia
Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Aitor Puerta

Telefonoa: +34-945-01 69 61; Faxe: +34-945-01 98 56

WEB-ORRIA: <http://www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak/>

Helbide elektronikoa: estadisticas-vivienda@euskadi.eus